

**EUSKAL HERRIKO ANTZERKIZALE ELKARTEAK (EHAZE)
“ESPERIENTZIXAK” EGITASMOA ANTOLATU DU**

ESPERIENTZIXAK gogoeta gunea

Eguna: uztailaren 2a.

Ordua: 16:00-19:15

Lekua: Donostiako Pedagogiako Fakultatea (Tolosa etorbidea, 70).

Norentzat: Edonori irekia.

Antolatzailea: Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE).

Egitaraua:

- Esperientzien aurkezpenak
(Eugenio Arozena, Antton Luku, Jose Angel Irigaray, Joserra Fachado),
- Gogoetarako tartea
- Markinako Abarka antzerki taldearen emanaldi laburra.

Antzerkia taula gainean ekintza bihurtutako hitz gogoetatu den moduan, hitz gogoetatu bihurtutako ekintza ere behar du izan, Antzerkizale Elkartearen ustez; herrenka ez ibiltzeko batak bestea du zor, alegia. Dialektika horretatik abiatuta bideratu nahi du bere ibilbidea, hain zuzen. Nahi horrek gidatuta, izandako ekintzak eta esperientziak hitz gogoetatu bihurtzeko asmoz, ESPERIENTZIXAK izeneko egitasmoa sortu du bere baitan.

ESPERIENTZIXAK egitasmoa euskarazko antzerkigintzaren esparruan gogoeta gunea berri bat zabaltzeko sortzen da. Antzerkiarekin loturik dauden eta zerikusi zuzena duten esperientzia desberdinak plazaratzea eta zabaltzea du helburu. Oraingo honetan, antzerkia eta eskola, transmisioa, amateurgintza, antzerkia eta euskara... bezalako gaiak jorratuko dira. Arlo eta lurralde desberdinetatik etorriak, ondoko hauek parte hartuko dute mahai inguruan, bakoitzak bere ekarpen propioa uztartuz: Eugenio Arozena, Joserra Fachado, Antton Luku eta Jose Angel Irigaray. Ondoren, Ander Lipus moderatzaile lanetan arituko delarik, hizlari eta publikoaren arteko iritzi truke tarte zabal bati irekiko zaio atea. Hau bukatzean, eta jardunaldiari bukaera gozoa emateko, hitza ekintza bilakatu berriz antzezlan labur bat antzeztuko da.

Amaitzeko, ESPERIENTZIXAK egitasmoa Hik Hasiko Topaketen markoan burutzen bada ere euskarazko antzerkigintzan interesa duen edonorentzat irekia dela azpimarratu behar da, zaletu guztiei gonbidapena luzatzen diegularik.

HIZLARIAK

Eugenio Arozena

Oiartzunen jaioa (1940). Antzerki munduan 1963. urte aldera hasi zen, antzezleri moduan Lartaun antzerki taldean, lehen antzezkizunak Manolo Juanesen eskutik, eta ondoren Xavier Leteren zuzendaritzapean. Zenbait ikastaro eginez (Italia, Finlandia...) bere formazioa osatzen joan zen.

Bere antzerki ibilbidean hiru etapa bereiz daitezke: 1.- 1965etik 1982ra arte antzerki amateurrari lotuta dago. Oiartzungo Intxixu antzerki taldearen sorreran parte hartu eta zuzendari moduan aritu zen denbora luzez. Euskal Antzerki Taldeen Biltzarraren sortzaileetako bat izan zen. 2.- 1982tik 1997ra arte, Eusko Jaurlaritzak sortutako Antzerti programaren zuzendari izana. 3.- Azkeneko hamarkadan, euskarazko antzerkiaren ikertzaile eta antzerki lanen biltzaile moduan lan eskergea egin du.

Joserra Fachado

Pasai San Pedron jaioa (1960). Hasierako formazioa Pasaiako Antzerki Eskolan jaso zuen. Hortik aurrera, bi arlotan jorratu du bere ibilbidea: Aktore moduan telebistan, antzerkian eta zineman aritutakoa, zuzendari gisa egindako lana da, agian, inportanteena. Zurriola Antzerki Eskolaren koordinatzailea, 100 ikuskizun baino gehiago zuzendu ditu azken 16 urte hauetan, 3 urtetan euskarazko antzezlari hoberenaren saria lortuz Donostiako Gazteen Antzerki Topaketetan.

Antzerkia hezkuntza sisteman txertatzeko egin duen lanaren ondorioz, Zurriola Ikastola erreferentzia bilakatzeaz gain, umea eta antzerkiaren pedagogiaz zer esan asko duen pertsona da.

Antton Luku

Amerikako Estatu Batuetan sortua (San Frantzisko, 1959), Amikuzen (Nafarroa Behera) eman zituen bere umetako urteak. Egun Donibane-Garaziko lizeoan egiten du lan, euskara irakasle moduan.

Literaturan hainbat lanen egile, antzerkiaren alorrean egindako lanak dira ugariak eta ezagunenak. Hainbat urtetan Hirurak Bat taldean aktore lanetan ibili ondoren, testugile eta zuzendari moduan aritu da urte luzetan. Dramaturgo moduan titulu asko aipa daitezke, besteak beste, *Tu quoque fili*, *Antso Azkarra edo Miramolinen esmeralda*, *Baionan bizi*, *Hotel du Fronton*, *Lurra*, *Beltzeria*, *Escualdunac...* Zuzendari gisa, Hiru Puntu taldearekin egin du lan. Herri kultur eredu tradizionalak ikertu eta, hortik abiatuz, gaur egungo arazo eta estetikara egokitzen den antzerkigintza berri baten bilaketan saiatu da.

Bere azken lana, *Euskal kultura?* saiakera da. Bertan, *Fauxto* karrusatik abiatuak, halako diagnosi moduko bat egiten du euskal kulturaz, hausnarketa eta eztabaidarako bideak eskainiz.

Jose Angel Irigarai

Iruñean jaioa (1942), aspaldian Donostian bizi da. Kulturgintzan betidanik murgildua, hainbat ekimen eta elkarteren sustatzaile eta partaide izan da (Ez Dok Amairu, Aranzadi, Nafarroako Ikastolak, hainbat Euskara Elkarte, Bilboko Kafe Antzokia, Oteiza Fundazioa...). Sorkuntzari dagokionez, literatura da bere eremu nagusia: saiakera, narrazioa eta bereziki poesia. Zerrenda luzea da, besteak beste, ondokoak aipa daitezke: *Euskara eta Nafarroa* (1973), *Euskara bizitzaren kenkan*. *Orekaren mintzoa* (1988), *Urdinkara* (1995), *Denboraren mugan* (2005), *Joan-jinaren labirintoan* (2002), e.a.

MODERATZAILEA

Ander Lipus

Markina (1971). Madrilen egin zituen lehen antzerki ikasketak. Bertan zazpi urtez lanean egon ondoren, Bilbora itzuli eta beste artista batzuekin Mina espazioa sortu zuen. Harrezkero, bere ibilbidea antzerki ikerketa eta esperimentazioara bideratu zen.

1998an Antzerkiola Imaginarioa taldea sortu eta aktore eta zuzendari lanetan aritua. Antzerkiola Imaginarioarekin ere bost urtetan herriz-herriko antzerki-antropologia proiektua ere zuzendu du: "Ritos, gure azken lur zatia".

Mendebaldeko tradiziozko antzerkian aditua, batez ere Indiako kathakali antzerki-dantzak. ADEL (Arte Drama Euskal Laborategia) Aulestiko antzerki topaketak zuzentzen ditu. Bertako eskolako umeen antzerki irakaslea, eta Markiñako Abarka Antzerki Taldearen zuzendari eta partaide.

ANTZERKIZALETASUNAREN ALDEKO MANIFESTUA

Kobazuloaren babespean agian, edota, batek daki, basoko soilguneren batean bilduta, munduan lehenengo antzerkia egin zutenek ez zekiten egiten ari ziren hura antzerkia zenik. Egin egin zuten, besterik gabe; erreka bazterreko ur geldira bere buruaren islaren bila –bere buruaren egiaren bila, esan nahi da– lehenengo aldiz hurbiltzen den umearen modura, haiek ere, munduan lehenengo antzerkia egin zutenek, ispilu egia-esale batean begiratzeko sakoneko giza beharrari erantzuna eman eta egin zuten. Antzerkia egin zuten. Jakin gabe, antzerkia sortzen jakin zuten.

Munduan beste leku askotan bezala gurean ere horrela gertatu zen. Behar berberak bultzatuta, zuzen, zeharka edo magnifikaturik, gizartearen eta giza kondizioaren kezka, arrangura, amets, egarri, poz eta minen ispilua izango zen antzerkia sortu zuten. Testu gogoetatu eta idatzia, baina, ahozkotasuna zubi, une eta gune mugatu batean gauzatzen dena aldioro, erreka bezala gauzatu ere, beti berbera eta beti desberdina.

Guk behar berbera sentitzen dugu gaur. Fantasia, absurdoa, esperpentoa, umorea edota arrazoiaren bidez gure errealitatearen, norbanakoa eta kolektiboa, ispilu egia-bilatzilearen beharra sentitzen dugu. Ingurura begiratu, ordea, eta ispilu horren falta sentitzen dugu askotan. Antzerkia norberaren egiak eta zalantzak konpartitzeko modua izatetik jarduera dekoratibo izatera pasatu da, denbora-pasazkoa, edo okerrago dena, merkantzia hutsa. Puska handi batean, hor legoke bai gurean eta bai munduan antzerkiak pairatzen duen krisiaren iturri nagusietariko bat: sozietatearen zereginetan zeukan funtzioa eta zentralitatea galdu ondoren zentralitate eta funtzio subsidiarioetara pasatu izana.

Mundu mailan egoera horrelakoa bada, areago da euskarazko antzerkiari dagokionez. Orokorrean, espainiar eta frantziar antzerki moldeen menpeko da erabat, gai, erreferente, irizpide eta moldeetan. Euskarazkoan bada salbuespenik, badaude uharte gisako batzuk, baina orokorrean nabariak dira morrontza eta menpekotasunak. Ondorioz, gutxi da bertatik bertara, tradizioaz jabetua bezain berriari irekia, garatu den antzerkirik. Ez da harritzekoa. Lehen adierazi dugu: nolako sozietatea halako antzerkia, eta alderantziz.

Hain zuzen, antzerkia deus baino lehenago sorkuntza baldin bada, gure sozietatearen kultur lurralde eta ostertzak zabaldu ditzakeen sorkuntza bizia baldin bada, euskarazko antzerkia sendatzea, osatzea eta bizkortzea ezin garrantzizkoago helburua da, lehenengo eta bat, euskarazko antzerkigintzan ausartu, sartu eta sortu nahi dutenentzat, eta gero, jendearentzat. Euskaldungoarentzat, alegia.

Izan ere, euskarazko antzerkiaren egoera larria da. Xume, ahul eta sakabanatua, ekaitzaren erdian hondoratzeko arriskuarekin borrokan ari den untiaren irudia datorkigu burura. Ezin premiazkoagoa da, beraz, partekatutako gogoeta egin ondoren, indarrak bildu eta, asmoz eta jakitez, diskurtso berritu bat garatzen hastea. Testuinguru eta egoera horretan sortzen da Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE), hortik planteatzen ditu bere helburu eta zereginak: arloa antolatu-sendotu-sustatzeko borondate eta deliberamenduarekin, modu sustraitu eta irekian, erronkaren aurrean ausartu, sartu eta sortzen ari direnen eraginez. Erronka antzerkigintza bizi, sortzaile eta sendotua lortzea da. Nabaria denez, inplikazio sakonak dauzka horrek, gu guztion zereginetan, gure bizitzetan eta, azken buruan, euskal jendarte osoan.